

Kaixo, Sofia!

Nire izena Nerea da, eta Gasteiztik idazten dizut. Mila esker zure lanagatik. Astero entzuten dut zure irratsaioa, Faktoria, oso erabilgarria eta praktikoa iruditzen zaidalako, eta beti zerbait berria ikasten dudalako zure antolatzeko aholkuei esker.

Idazten dizut zure laguntza behar dudalako. Kontua da haurdun nagoela; bikiak edukiko ditut hurrengo hilabeterako (oraindik ez dakigu zer izango diren, misterioa gorde nahi dugulako). Edozein laguntza oso ondo etortzen zitzaigunez, ezagunei erabiltzen ez zuten arropa guri emateko eskatu genien. Erantzuna izugarria izan zen; bai lagunek, bai familiakoek, umeentzako jantzi ugari ekarri ziguten: urte desberdinetarako arropa, lau urtaroetarako arropa, zikina eta garbia, neskentzat eta mutilentzat... Ez pentsa, oso pozik gaude, baina orain etxe osoa arropa poltsez beteta dago, eta armairuetan ez daukagu hainbeste lekurik dena gordetzeko.

Bakarrik hilabete bat falta zait erditzeko, eta ez dakit nondik hasi eta nola antolatu arropa guztia. Horregatik, animatu naiz zure aholkuak eskatzera, ea lagundu ahal didazun. Hasteko, dena garbitegira eraman behar dugu ala hobe da, garbitu baino lehen, aukeratzea zer nahi dugun? Nola gorde genezake arropa guztia: adinaren arabera, sexuaren arabera, zer urte garaitarako izango den...? Non utziko dugu arropa, ganbaran edo etxean, eskura edukitzeko? Eta, zerbait nahi ez badugu, zer egin dezakegu jantzi horrekin.

Badakit galdera asko direla, baina denbora azkar doa, eta lehenbailehen dena antolatuta eduki behar dut.

Beno, Sofia, bukatu baino lehen, eskerrak eman nahi dizkizut. Ziur nago zure aholkuek lagunduko didatela. Espero dut zure erantzuna hurrengo irratsaioan entzutea.

Besterik ez, agur.

Nerea